

Iñaki Antiguiedad

Norabide onean bidea egiten

S

ukaldetik kanpo zaila da euskal politikagintza berriaren suan egosi bidean izan daitekeen horri heldutasun puntua hartzea. Argitara ematen diren elkarrizketetako lerroen arteko hutsuneak zure kabuz betetzera kondenatuta zaude halakoe-tan, saiakera horretan sukaldeko erreali-tatea non amaitu eta zure barruko desioa non hasten den nahastu egiten direla. Hortaz, azken hilabeteotan eragile asko gogoeta bizian izan dira, itxura denez iraganetik datozen inertziak, nork bereak, alboratu eta inertzion sorpuntu izan ziren estrategiek beren garaian indartutako oinarri sozio-politikoari gaurko honetan modu eraberritu eta behingoz eraginkorrean eusteko asmoz. Mezu berriak entzun dira azken sasoi-an, hitz berriak testu, eta kontestu, berrie-tan. Eta niri ohiko zalantza barneratu zait: oraingoa egiaz eraginkorra ote ala nire desioa berriro ere?

Deigarria izan arren sozialismoaz janzen direnek konbentzitu naute; bai, oraingo apustuak serio behar du. Zelan ulertu bes-tela azken boladako mozko-rraldi errepresiboaren ger-taera-segida? Presoen argazki-ena, senideak legez kanpo utzi nahia, edo azken sarekada fina, momentuz azkena. Bai, gogoeta horiek emanak, ezker abertzaleare-nak funtsean, min egin du, min egin die zezen larruko unionistei mina gehien sentitzen duten lekuan, konfrontazio politikoaren eremu eraginkorrean, espeteratu berri dituz-ten buruzagi batzuek beren gogoetan iragarria zuten bezala. Zuria eta botilan; dudarik ez. Horrela ulertu dute lehengo-an Donostiara bildutako milaka herrita-rrek, aspaldiko partez milaka eragile bihurtzeko ilusio berrituaz. Eta kontuak atera, oraindik ez da konfrontazioa ter-mino berrietan hasi, atariko beroketa baino ez baita izan zapuztu nahi izan duten oraingo hau! Boomerang efektua.



DANI BLASCO

Efektu hori iraunkorra izatea da abiatze-ko den prozesuak hartu behar duen hel-bidearen ezaugarri bat, Estatuaren alde-tik oldarraldi gehiago espero daitezke eta. Gaztelarazko esaera zaharrarena euskaraz gogoan: zaunka egiten dute, zamalkatzen garen seinale!

Gogoetak gogoeta, hainbatetan neka-tu arte entzun dugun ziklo berriarena abiatze-ko egon daiteke behingoz. Uki-tzeko moduan da azkenik. Eta nago ni, horretan aparteko garrantzia izan duela ezker abertzalearen gogoeta propioak, zalantzarik ez dudalako bera dela abia-tze horren ezinbesteko motore eta ber-me; beharrezkoa da, nahikoa ez bada ere. Estrategia politikoaren aldeko apus-tu sendoa ondorioztatzen da gogoeta horretatik, eta prozesu politikoaren ibil-bidean trantsizio faseak izan beharra

ere, helbidean tarteko hel-mugak jarrita, garai bateko presazko zuri-beltzeko hautua gaundituz. Hortaz, aukera dago oraingoan Estatuak seguruenik gaitz txikiagotzat hartzen zuen bideari buelta emateko, garai batean aldaketarako baldintzak sortzeko balioa izan zuen estrategia politi-ko-militarra aurrerantzean gauzatu behar den aldake-tarako konfrontaziozko estrategia politiko irmo huts bilakatuta.

Arriskatzeko ordua da hau, ezkerreko subiranistok behingoz behar ditugun aukerak arriskatzetik etorriko baitira. Aliantzak osatzeko ordua da ere, indar subiranistaren artean. Baina ez diezazki-gula independentziaren basoak socialis-moaren zuhaitzak ezkutatu. Hortaz, ezker abertzaleak legala behar du bilaka-tu, ukatu egiten gaituztenen legeetan legala. Eta hori 2011ko mugarrira buruan, hil ala biziko hitzordua baita hori, bizitzeko apustua egin duenaren-tzat. Fundamentuzko ezkerrentzat ezinbesteko bermea da bilakatze hori, aldaketa politikoaren norabide onean. ■

Ezker abertzaleak legala behar du bilakatu, ukatu egiten gaituztenen legeetan legala. Eta hori 2011ko mugarrira buruan, hil ala biziko hitzordua baita hori, bizitzeko apustua egin duenarentzat. Fundamentuzko ezkerrentzat ezinbesteko bermea da bilakatze hori, aldaketa politikoaren norabide onean